



Adsis Fundazioaren 2008-2013rako



PERSONA

- Con lo que es.
- Con lo que puede ser.
- Con los valores y el acompañamiento y apoyo.

EL POTENCIAL DE
CADA PERSONA

PERSONA
institución
de la DIVERSIDAD

OFRECER UN
SERVICIO
LIBERADOR.


INSERTOS EN
LA REALIDAD
HISTÓRICA DEL

MOMENTO
- Nos cuestiona - Nos anima
- Nos moviliza - Recrea

FRATER (DAD)

OPORTUNIDAD
PARA
MUCHOS y
POBRES

PLAN ESTRATEGIKOA



1. Zergatik plan estrategiko bat Adsis Fundaziorako?

Adsis Fundazioa 1996an sortu zuen Adsis Komunitateen Mugimenduak. Injustiziaren, pobrezia-aren eta bazterkeriaren kontra gehiago eta hobeto lan egiteko sortu zen. Gizarte-ekintzako erakunde moduan eratu zen eta zabalik dago bere xede eta balioekin bat datorren eta konpromisoa hartzen duen jendeak parte har dezan, askotariko ideiak eta sinesmenak izanda ere.

Hamar urtez lanean jardun ondoren, **Adsis Fundazioko** kideok pentsatu genuen iritsi zela garaia egindakoari buruz gogoeta egiteko, eta aurrera begiratu behar genuela, etorkizunean zer joera jarraitu guztiok batera erabakitzeko. Hori dela eta, **Adsis Fundazioaren 2008-2013rako plan estrategikoa** egiteko prozesuari ekin zitzaion.

Planifikazio estrategikoa aukera bat bezala ulertu dugu. Urte eta erdian, gutxi gorabehera, denbora hartu dugu eta ahaleginak egin funtsezko gai batez pentsatzeko eta erantzuna emateko: zer ari gara egiten eta nola egin dezakegu hobeto, zer garen eta zein ingurutan aritzen garen lanean kontuan hartuta?

Planifikazio-prozesuari esker Fundazioaren izateko arrazoa berrikusi dugu, gure **xedea**, alegia, eta gure **balioei** buruz gogoeta egin dugu, horiek zehazten baitute gure estiloa, gure izaera eta jarduerak.

Fundazioa zer unetan dagoen, zer ingurutan ari den lanean eta zer kanpo-harreman dituen jakiteak aukera eman digu etorkizuneko erronkak aurkitzeko eta **2013ko ikuspegia** eratzeko. Hori guztia kontuan hartuta, **jardunbide estrategiko** batzuk finkatu ditugu, eta **helburu eta lehentasun** batzuk ezarri 2008tik 2013ra bitarteko lanean aplikatzeko.

Datorren urteetarako, **2013ko ikuspegiak gure etorkizuneko apustua zertan datzan adierazten du**, gure ahaleginak zer jomugatarara zuzendu seinalatzen du. Horrenbestez, Fundazioarekin lotutako jende guztiaren parte-hartzea izanda, **erakunde hobea eratzten jarraitzeko konpromisoa hartu dugu**, jendearen eta talde pobre nahiz baztertuen sustapen integralean eraginkortasunez eta efikaziaz lan egiteko.

2. Nola egin dugu Plan Estrategikoa?

2008-2013ko Plan Estrategikoa **talde-lanetik sortutako emaitza da**, eta abian jarri eta garatu ere talde-lanean egingo da. Plan hori ezin izango zen egin **Adsis Fundaziori** lotutako jende askoren parte-hartzeagatik izan ez balitz, ez eta gurekin harremana duten erakunde publiko eta pribatuena laguntzarik gabe ere. Eskerrak eman nahi dizkiegu parte hartzeagatik, era desberdinetan izanda ere: ekarpenak, ideiak, iritziak, informazioa, proposamenak, laguntza... Milesker!

Adsis Fundazioaren 2005-2007ko planifikazio estrategikoaren prozesua

1 FASEA
Prozesua zehaztu

2 FASEA
Baliok eta xedea berrikusi

3 FASEA
Informazioa bildu eta diagnostikoa egin

4 FASEA
AMIA analisisia egin, 2013ko ikuspegia zehaztu eta
plan estrategikoa prestatu nahiz onartu

5 FASEA
Plan Estrategikoa sozializatu eta ezarri

A. Zer egin dugu juntsean fase horietako bakoitzean?

1. fasea. Prozesua zehaztu: planifikazio estrategikoaren prozesuaren oinarrizko arrazoiak identifikatu, bai eta planifikazioa arrakastaz egiteko beharrezko baldintzak ere; lan-plana egin eta talde bat sortu prozesua koordinatzeaz arduradain.

2. fasea. Balioak eta xedea berrikusi: Adsisen balioak gogoratu eta sozializatu, eta guztientzako erreferentia finkatu, abiapuntua izan dadin eta planifikazio estrategikoaren gainerako prozesua bidera dezan.

3. fasea. Informazioa bildu eta diagnostikoa egin: Fundazioaren egoera ezagutu bere antolaketa-kulturaren alde sendoak eta ahulak zein diren zehazteko, eta inguruaren egoeraz jakin fundazioaren jarrera eta etorkizuneko erronkak finkatzeko.

4. fasea. AMIA analisia egin, 2013ko ikuspegia definitu eta Plan Estrategikoa prestatu nahiz onartu: fundazioak dituen alde indartsuak, ahulak, mehatxuak eta aukerak identifikatu, Fundazioaren 2013ko ikuspegia zehazte aldera, eta ikuspegi horretatik abiatuz, lortu beharreko estrategiak eta helburuak jarri; 2007-2013ko Plan Estrategikoa egin eta onartu.

5. fasea. Plan Estrategikoa sozializatu eta ezarri: plan estrategikoa aditzera eman eta sozializatu, barrutik nahiz kanpotik; **Adsis Fundazioko** eremu, zerbitzu eta programetako lehentasunak eta estrategiak zehaztu; jarraipena egiteko, ebaluatzeko eta etengabe hobetzeko sistema diseinatu; plana ezarri eta 2008. urteko plana prestatu plan estrategikoan finkatutakoari jarraituz.

B. Nork hartu du parte planifikazio estrategikoko prozesuan?

Eskema honetan **planifikazio-prozesuan** hainbat eratan **esku hartu** duten jendea eta erakundeak jarri ditugu “mapa” baten barruan.



Planifikazio-prozesua **Planifikazio Estrategikorako Batzordeak** diseinatu eta dinamizatu du; batzorde hori Fundazioan eginkizun desberdinak dituzten hamar lagunek osatzen dute, hala nola, Zuzendaritza-taldeko kideek, Eremuen Zuzendaritzakoek, Zentroetakoek, Zerbitzu Orokoretakoek, Batzorde Aholkulariakoek... Prozesuko talde “eragilea” arduratu da zeregin hauek:

- Prozesu osoaren ideia landu eta koordinatu.
- Fase bakoitzean lanean ari diren jendearen eta taldeen parte-hartzea bideratu.
- Fase bakoitzeko emaitzak bildu, sistematizatu eta zabaldu, aurrera egiten jarraitzeko.
- Prozesuaren erritmoa eta egutegia kontrolatu.
- Plan Estrategikoaren dokumentua egin, egiazta dezaten eta azkenik onar dezaten.

Fundazioaren gobernu-organoa den aldetik, **Patronatuak** une oro sustatu eta jarraitu du hurbiletik prozesua. Urrats guztiak egiaztatu eta balioztatu ditu, eta oniritzia eta onarpena eman die lan-fase bakoitzeko emaitzei. Azken onarpena eman baino lehen, eta prozesua gidatu zuten funtsezko elementuak zehazterakoan, Patronatuak prozesuan sartutako **Adsis Komunitate** guzti-guztien laguntza izan du, Fundazioaren sustatzaileak dira eta.

Prozesuan, batez ere, 2 eta 3. faseetan, **hainbat modutan hartu dute parte Fundazio barruko eta kanpoko jendeak eta taldeak**. 67 bakarkako elkarriketa egin dira, 27 bilera, eztabaida-taldeak edo taldeko emaitzetarako guneak sortu dira (240 lagunek hartu dute parte), eta 257 galdera-sorta erabili dira guztira, iritzi, ideia eta proposamenak biltzeko.

Parte hartzeko modu horiez gain, **Batzorde** bat eratu zen: Fundazioan sartutako hamalau lagunek osatzen zuten; ikuspegi ezberdinetakoak ziren, Fundazioko aniztasunaren erakusgarri (Patronatuko kideak, Adsis komunitateetakoak, Zuzendaritzakoak, kontratutako langileak eta boluntarioak...). Batzordearen zeregina bestelako ikuspegia ematea zen, ekarpenak sistematizatzea eta proposamenak egitea xedea, ikuspegia eta balioak adierazteko une garrantzitsuetan.

Nabarmendu behar da, halaber, **Batzorde Aholkulariak** eta Fundaziotik **kanpoko laguntzaile batzuek** lan handia egin dutela eta oso bestelako arrastoak eta orientabideak eman dituztela prozesuari buruz.

3. Eginkizuna, balioak eta 2013rako ikusmira

Adsis Fundazioaren misioa

Gure misioa elkartasunezkoagoa eta zuzenagoa den gizarte baten eratzean datza, txirotutako eta baztertutako gizabanako eta taldeen sustatze osoaren bitartez. Gure zeregin hau banakako zein taldekako prozesuen bidez gauzatzen dugu; prozesu hauek zerbitzu eraginkorreatan, laguntza eta harreman hurbilean oinarrituta daude. Bereziki, gazteak konprometitzea bilatzen dugu. Horrez gainera, beste erakundeekin eta gizabanakoekin batera, giza ekintza, heziketa eta garapenerako lankidetasun programak gauzatzen ditugu.



Adsis Fundazioaren baloreak

Gizakia ardatz. Gure giza ekintzaren balorerik garrantzitsuena eta oinarrizko ardatza gizakia dela sinesten dugu. Giza duintasunarekiko begiruneak, gizabanako bakoitzaren sustapenak eta garapen osoa bilatzeak gure eguneroko zeregina taxutzen du.

Haurridetasuna. Munduko gizon eta emakume guztiak senidetza bereko partaideak garelakoan gaudenez gero, haurridetasuna elkarbizitzan oinarritutako harreman tankera, elkarriketa, elkar laguntza eta baldintzarik gabeko maitasunean gauzatzen dela uste dugu.

Utopia. Mundu honetan, gizabanakoaren artean eta herrien artean, zuzentasunezko, elkartasunezko, haurridetasunezko eta bakezko harremanak eman daitezen ahalbideratzeko lan egiten dugu.

Eraldaketak sortarazten dituen presentzia. Bazterturik eta txiroarazirik dauden herrien eta gizabanakoen gurariekin baturik eta eurengandik hurbil izanik, errealitatea eraldatzean konprometitzen gara modu eraginkor eta kritikoa. Beharrezkoa den gizarte eraldaketa eragin nahi dugu eta horrekin batera, aukerak sortarazi nahi ditugu gizabanakoentzat eta komunitateentzat, baita giza egituren eremuan ere.

Zuzentasuna eta elkartasuna. Giza bazterketan eta pobrezian bizi diren gizabanako, komunitate eta herrien egoerak hobetzekotan, zuzentasuna eta elkartasuna sustatzen konprometitzen gara.



Parte hartzea eta protagonismoa. Elkarrekin, sarek eta taldez egindako lanetan oinarritzen diren lankidetasun erak hautatzen ditugu. Egoerak eraldatzeko prozesuetan, gizabanakoen erantzukizuna eta protagonismoa sustatzen dugu.

Komunikazioa eta gardetasuna. Egiten duguna eta garena eskaintzen dugu, gure erakundearen barneko eta kanpoko jarduera eta kudeaketari buruzko komunikazio gardena zainduz.

2013.ari begira, Adsis Fundazioaren ikuspegia


Adsis Fundazioak oso erakunde onetsia da tokian tokiko esparruetan zein Estatu mailan, berak sustatzen eta gauzatzen dituen giza ekintza, heziketa eta garapenerako lankidetasun programak direla eta. Ondoko ezaugarri hauek hornitua da:

- Berak duen harreman tankera bere eginkizunaren garapenean oinarrizko ardatza delarik, bere baloreak bizi eta zabaltzen ditu.
- Gazteekin egindako lana dela eta, bereziki ezaguna da.
- Gizabanako eta talde jasotzaileen sustapen osoa gauzatzen duten kalitatezko zerbitzuak eskaintzen ditu.
- Tokian tokiko esparru eta Estatuaren mailako giza-leku eta giza-sareetan, gizartearen eraldaketan ondorioz duen presentzia eraginkorra dauka.
- Bere egitearen eragina ebaluatzen du eta gizarteaz zabaltzen du.
- Irmoa eta eraginkorra den egitura bat dauka, zeinean partaideak diren guztiak informatuta dauden, parte hartzen duten eta osagarria den eran ekiten duten.
- Estrategiak elkarrekin zehazten ditu, bai lekuan lekukoak, baita orokorrak ere.
- Sendoturik eta konprometiturik dagoen boluntarioria bat badu. Beronek zeregin garrantzitsua du eta kopuruz eta kalitatez zabaltzen da.
- Finantzaketa iraunkorra du, eta honen bitartez bere eginkizunak aurrera eramane ditzake.



4. Zer ildo estrategikori jarraitzen dio gure ekintzak eta zer helburu nagusi ditugu 2008-2013 aldirako?

Hauexek dira Plan Estrategikoan proposatzen diren lau jardunbide nagusiak:



Lau ildo estrategiko horietan aurreikusitakoaren arabera, urtez urte helburu, lehenetasun eta emaitza zehatz batzuk bilduko direla lanerako plan operatiboetan, eta plan horietan zehaztuko dira alderdi horiek betetzeko helburuak, ekintzak, baliabideak, sartutako jendea eta taldeak, etab. Era berean, urtero planaren nondik norakoaren jarraipena eta ebaluazioa egingo da, denborarekin premiazko guztia adosten joateko, betiere erreferentziazat xedea, balioak eta 2013ko ikuspegia hartuta.

Orain, ildo estrategiko bakoitzaren funtsezko ezaugarria eta helburu nagusiak azalduko ditugu.

1 ILDO ESTRATEGIKOA:

KANPORA BEGIRATZEA ETA GIZARTEA ERALDATZEA

Kanpo-komunikaziorako politika landuko dugu, **Adsis Fundazioaren** xedea eta balioak aditzera emateko eta gizartea sentsibilizatzeko lantzen ditugun eremu eta kolektibo nagusien gainean: gazteekiko gizarte-ekintza.

Ildo horretan, eta gure xedearekin eta balioekin bat etorritik betiere, arreta berezia jarriko dugu arlo eta kolektibo horien inguruko gaien aurrean zer nolako jarrera dugun zehazteko eta erakusteko. Hortaz, parte hartuko dugu gai horietan lanean diharduten eta gizartea eraldatu nahi duten sare eta foroetan.

HELBURU NAGUSIAK

1. HELBURUA: Gizartearen aurrean agertzeko eta parte-hartze sozialerako politika zehaztu eta garatu.
2. HELBURUA: Kanpo-komunikaziorako plana diseinatu eta ezarri.
3. HELBURUA: Adsis Fundazioa gizarte-ekintzaren eta garapenerako lankidetzaren sektorean jarri.

2 ILDO ESTRATEGIKOA:

ZERBITZUAK ETA PROGRAMAK HOBETZEA

Adsis Fundazioan lantzen ditugun zerbitzu eta programak eguneratu, berritu eta hobetu nahi ditugu. Horretarako, errealitate soziala, egiten dugun lana eta gure ekintzek gizartean duten eragina aztertzeko bide emango digun lan-kultura hartuko dugu.

Hori guztia gure jardueren kalitatea hobetzeko eta etengabeko hobekuntza sustatzen duten prozesuei jarraituz lan egiteko egingo dugu.

HELBURU NAGUSIAK

4. HELBURUA: Prozesuka eta kalitatez kudeatzeko sistema ezarri.
5. HELBURUA: Fundazioaren zerbitzu eta programak berritzearen alde egin.
6. HELBURUA: Lantzen ditugun zerbitzu eta programen eragina ebaluatzeko sistema diseinatu eta ezarri.
7. HELBURUA: Fundazioaren garapenerako lankidetzeta zehaztu eta ezarri.

3 ILDO ESTRATEGIKOA:

ANTOLAKETA HOBETZEA ETA JENDE ETA TALDEEN ALDERDIA GARATZEA

Adsis Fundazioaren antolaketa hobetzeko, lehenik, Fundazioaren gobernu-organoaren eta zuzendaritza-taldearen zereginak, eskumenak, funtzioak eta elkarrekintza indartu eta hobetu behar dira. Era berean, gurea bezalako erakunde batean funtsezkoa da zentzuz jokatzeko ekintza lokal eta globala antolatzerakoan eta batera lan egiterakoan; taldean eta sarean egin behar da lan, eraginkortasuna eta efikazia hobetzeko jarduerak irizpideak eta metodoak partekatuz.

Ildo horretan, halaber, lan-taldeak indartu nahi ditugu, Fundazioari lotutako jendearen eta kolektiboen parte-hartzea eta barne-komunikazioa erraztu eta bultzatu nahi ditugu.

HELBURU NAGUSIAK

8. HELBURUA: Funtzionamendu-esparru bat finkatu eta hantxe zehaztu Adsis Fundazioaren gobernu-organoak eta zuzendaritza-organoak zer eskumen dituzten ekintza orokor eta lokaletan.
9. HELBURUA: Funtzionamendu-eredu azkarra eta eraginkorra diseinatu eta ezarri.
10. HELBURUA: Zuzendaritza-organorako egiaztapen- eta aholkularitza-sistema diseinatu eta ezarri.
11. HELBURUA: Fundazioko kontratatutako langileen eta boluntarioen kudeaketa- eta garapen-politika eguneratu.
12. HELBURUA: Fundazioari lotutako kolektibo guztietarako parte-hartze eremuak zehaztu eta dinamizatu.
13. HELBURUA: Barne-komunikazio eta -informaziorako sistema integratua diseinatu eta ezarri.

4 ILDO ESTRATEGIKOA: IRAUNKORTASUN EKONOMIKOA AREAGOTZEA

Gure egitekoa modu eraginkor eta efikazean gauzatzeko eta 2013ko ikuspegia betetzeko, **Adsis Fundazioaren** bideragarritasun ekonomikoa bermatu behar da ezinbestean, eta ahalegin berezia egin behar da fondoak dibertsifikatzeko eta finantziazio pribatua areagotzeko. Horrela baino ezin izango dugu bermatu programak iraunkorrak izango direla, proiektuek aurrera egingo dutela.

HELBURU NAGUSIAK

14. HELBURUA: Zerbitzu eta programen bideragarritasun eta iraunkortasun ekonomikoa aztertu eta ebaluatu, baliabideak esleitzerakoan eraginkorrak izateko.
15. HELBURUA: Diru-sarrera pribatuak areagotu.
16. HELBURUA: 2013an, epe luzerako akordioen, lizitazioen, hitzarmenen eta kontzertuen bidez lortzea finantziazio publikoaren % 60.

Laguntza-ongintzazko Fundazioa, 1996ko ekainaren 19ko Ministro-Aginduaren arabera. Lan eta Gizarte Galetarako Ministerioaren Fundazio Erregistroan 28/1019 zenbakiaz inskribatua. IFK: G81436099.
Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazio Erregistroan FJB-05 zenbakiaz inskribatua.

www.fundacionadsis.org
902 367 665

